

# REPRÉSENTATIONS SOCIALES ET ANALYSE DES DONNÉES

Willem Doise, Alain Clemence eta Fabio Lorenzi-Cioldi  
Presses Universitaires de Grenoble, 1992

1992an argitaratu zen lehen aldiz *Representations sociales et analyse des données* liburua Willem Doise, Alain Clemence eta Fabio Lorenzi-Cioldi psikologo sozialek idatzia, Presses Universitaires de Grenoble argitaletxean. Urtebete geroxeago, ingelesezko bertsioa argitaratu zen, *The quantitative analysis of social representations* izenpean eta Hervers-ter argitaletxean.

Nolabait esateko, liburuaren azken xedea "hartze luzekoa" eta erraza da aldi berean. Liburuaren xedea alde batetik "hartze luzekoa" da, zeren ez baita Irudikapen Sozialaren ikasketan datu-analisen teknikak deskribatzera mugatzen. Aldiz, Irudikapen Sozialen teoria eta metodologiaren arteko loturak aztertzen ditu. Bourdieu-k liburuaren aitzinsolasean "erreflexibitate" honekin agurtzen du liburua. Bestalde, liburuaren xedea erraza da zeren oso ideia soilean oinarritzen baita, alegia, «datu-analisen teknika koantitatiboen printzipioak aurkezten ditu, irudikapen sozialak ikasteko» (12 or).

Askotan irudikapen sozialen ikerlanei eginiko kritiketan autoreei aurpegiratzen zaie errealitate sozialeko ikuspegi kontsentsualen menpe makurtzea. Irudikapen sozialari eginiko berrikusketak adierazten du, ikerlari asko datu-analisen metodo automati-

koak erabiltzera mugatzen dela. Metodo hauek, faktore-analisi tradizionala edo korrespondentziako faktore-analisia bezalakoek, erantzun indibidualen arteko desberdintasunen printzipio antolatzaileen azterketari ekiten diote. Liburuan zehar era ulergarrian aurkezten dira teknika estatistiko hauek. Autoreen helburua ez da teknika hauen sofistikazio hutsean gelditzea, adibideen bitartez garatzea baizik. Irudikapen sozialak ikastera hurbiltzen diren ikasleei edo ikerlariari laguntzen saiatzen dira autoreak. Autoreek datu-analisi koantitatiboen tekniken printzipio orokorrak azalduko dituzte irudikapen sozialak ikasteko. Horretarako irudikapen sozialaren teoriari buruzko berrikusketa egiten saiatzen dira autoreak sarreran, eta ondoren liburua hiru zatitan banatzen da, objektibazioa, posizio-hartzea eta ainguraketa zatietan, zeintzuk Irudikapen Sozialen analisi empirikoaren printzipio eta definizio kontzeptualari baitagozkio.

Irudikapen Sozialaren garapen teorikoan, autoreak Serge Moscovici-ren (1961) eta euretariko baten ideietan (Doise 1989, 1990) oinarritzen dira (hala ere, irudikapen sozialari buruzko bibliografiarako ikus Jodelet 1989). Irudikapen Sozialen Teoria sistema eta metasistema-kontzeptuen inguruan erazten da. Moscovici-ren hitzak erabiliz

... nous voyons à l'oeuvre deux systèmes cognitifs, l'un qui procède à des associations, inclusions, discriminations, déductions, c'est-à-dire le système opératoire, et l'autre qui contrôle, vérifie, sélectionne à l'aide des règles, logiques ou non; il s'agit d'une sorte de métasystème qui retravaille la matière produite par le premier (1976: 254).

Beraz, metasistema sozialak sistema kognitiboan egiten duen erregulazioa izango da irudikapen sozialaren ikasketa propioa. Hemen psikologia sozialaren funtsezko galdera ondokoa izango da, alegia, zein erregulazio sozialek eguneratuko duten zein funtzionamendu kognitibo eta zein testuinguru zehatzetan. Autoreen arabera datu-analisen programek lagun dezakete funtsezko galdera honi erantzuten, batik bat, irudikapen sozialaren funtsezko bi prozesuei dagokienean, objektibazioa eta ainguraketa prozesuei.

Objektibazio-prozesuak abstraktua dena zehatza egiten du, ezaguera zientifikoaren erlaziozkoa dena zerbaiti buruzko irudi bihurtzen du. Gainera, objektibazioaren funtzio sozialak komunikazioa bermatzen du kontzeptu batean bere ingurune teorikotik disoziatuz. Ainguraketa-prozesua ezagunagoak diren kategoria-sareetan ezaguera-gai berriak sartzean datza. Gainera, objektibazio eta ainguraketa dinamika biak aurrez aurre ari dira, oposaturik daude. Lehenengoa saiatzen da "egia argiak" sortzen denen-

tzat eta edonolako determinismo sozial eta psikologikotik bereiziak. Bigarrenak, aldiz, determinismoaren parte-hartzea adierazten du, bere genesi eta transformazioan.

Hala ere, irudikapen sozialaren ikasketan arazo garrantzitsua da bere "oinarrizko materia", hau da, iritzi-, jarrera- edo aurriritzi-jasoketa indibidualak, non gizabanakoen taldekateen printzipio antolatzaile amankomunak berregin behar baitira. Ihar-duera honetan, beraz, datu-analisiak erabiltzea beharrezkoa da, eta hauek deskribatzen dira liburu honetan. Objektibazioa, printzipio antolatzaileak eta ainguraketa izango dira irudikapen sozialaren teoriaren gako-kontzeptuak eta liburuaren hiru zatiek deskribatuko dute hainbat autorek irudikapen sozialaren ikasketa enpirikoan erabiltzen dituzten metodo koantitatibo garrantzitsuenak.

Liburuak, dena den, kritika zorrotzak jaso ditu, irudikapen sozialaren teoria, aurkezpen metodologiko eta azalpen estatistikoaren aldetik (Ikus Flament 1993). Kritika hauei, halere, liburuaren azaleko elementuak bakarrik ukitzen direla esanez erantzun zaie (ikus Doise, Clemence & Lorenzi-Cioldi 1993). Funtsean, beraz, liburuak bere xedeak betetzen ditu, alegia, oso lagungarri gertatzen zaio irudikapen sozialaren alorrera hurbiltzen den ikerlariari, orain arte hutsik zegoen tokia betetzen duelarik.

## Bibliografia

- Doise, W., (1989): "Cognitions et représentations sociales: L'approche génétique" in D. Jodelet (ed.), *Les représentations sociales*, PUF, Paris.
- , (1990: " Les representations sociales" in R. Ghiglione, C. Bonnet & F. Richard (ed.) *Traité de psychologie cognitive 3: Cognition, Representations, Communication*, Dunod, Paris.
- Doise, W. Clemence, A. & Lorenzi-Cioldi, F., (1993): "Consensus et representation sociale: Reponse a Claude Flament", *Revue Internationale de Psychologi Sociale*, 1, 132-139.
- Flament, C., (1993): "Un livre en discussion. Nota critique", *Revue Internationale de Psychologie*, 1, 121-131.
- Jodelet, D., (1989): *Les représentations sociales*, PUF, Paris.
- Moscovici, S., (1961): *La psychanalyse, son image et son public*, PUF, Paris (2. argitaraldia 1976).

J. F. Valencia